

4.1. Gaiaren aurkezpena

> Txano Gorritxo

- Ipuina



Txano Gorritxo



4.1. Gaiaren aurkezpena

> Txano Gorritxo



- Ipuina

Behin batean, bazen neskato bat basoko etxe batean bizi zena.
Beti izaten zuen amonak egindako txano gorri bat jantzita.
Horregatik, mundu guztiak deitzen zion Txano Gorritxo.



4.1. Gaiaren aurkezpena

> Txano Gorritxo



- Ipuina

Egun batean, goizean goiz esan zion amak:

- Txano Gorritxo, tori saski hau, bazkaria dago barruan. Eramaiozu amonari gaixorik dago eta, baina, kontuz, basoan otsoa dabilelako.
- Bai, amatxo, lasai –erantzun zion Txano Gorritxok.



4.1. Gaiaren aurkezpena

> Txano Gorritxo

- Ipuina



Txano Gorritxo, saskia hartuta, amonaren etxerantz joan zen basoan zehar. Bidean, amonarentzat loreak batzen geratu zen eta orduan...



4.1. Gaiaren aurkezpena

> Txano Gorritxo

- Ipuina



- Hara non, egin zuen topo otsoarekin:
- Nora zoaz Txano Gorritxo zoragarri?
 - Amonaren etxera noa, gaixorik dago eta.
 - Ea ba nor iristen den lehena amonaren etxera. Ni bide luzetik joango naiz eta zu laburretik.



4.1. Gaiaren aurkezpena

> Txano Gorritxo



- Ipuina

Otsoa korrika abiatu zen, baina tranpati halakoa, bide laburra hartu eta bera iritsi zen lehena amonaren etxera.

Kax-kax! Otsoak atea jo zuen.

– Nor da? –galdetu zuen amonak.

– Txano Gorritxo naiz eta jatekoa ekarri dizut.

– Sartu, sartu laztana atea zabalik dago.

Otsoa amona jateko prest sartu zen, baina amona korrika batean armairuan ezkutatu zen, gero otsoak amonaren arropa jantzi eta ohean sartu zen.



4.1. Gaiaren aurkezpena

> Txano Gorritxo

- Ipuina



Handik gutxira Txano Gorritxo iritsi zen eta atea jo zuen.

Kax-kax!

- Nor da? –galdetu zuen otsoak ahots fin-fina ipinita.
- Txano Gorritxo naiz eta jatekoa ekarri dizut.
- Sartu, sartu laztana atea zabalik dago.



4.1. Gaiaren aurkezpena


> Txano Gorritxo

- Ipuina



Txano Gorritxo sartu egin zen, arraro xamar aurkitu zuen amona eta esan zion:

- Ene amona, zein belarri handiak dituzun!
– Zeuri hobeto entzuteko.
- Ene amona, zein begi handiak dituzun!
– Zeuri hobeto ikusteko.
- Ene amona, zein sudur handia duzun!
– Zeu hobeto usaintzeko.
- Baina, amona zein aho handia duzun!
– Zeu hobeto jateko!



4.1. Gaiaren aurkezpena

> Txano Gorritxo

- Ipuina



Eta, otsoak ahoa zabaldu zuen Txano Gorritxo jateko,
baina Txano Gorritxok salto egin eta ihes egin zuen.



4.1. Gaiaren aurkezpena

> Txano Gorritxo

- Ipuina



Une hartantxe, juxtu-juxtu, ehiztari bat pasatu zen etxearen aurretik eta oihuak entzutean etxean sartu zen. Otsoak, beldur-beldur eginda, ziztu bizian ospa egin zuen. Ordutik aurrera sekula ere ez zen basora itzuli.

- Amona non zaude? –oihu egin zuen Txano Gorritxok.
- Hementxe nago, armairuan ezkutatuta.

Txano Gorritxok eta ahiztariak amonari armairutik irteten lagundu zioten.

